# Bestelako Xedapenak

**INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**2439**

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 31koa, Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariarena, zeinen bidez Jaso Equipos de Obras y Construcciones SL entitatea onartzen baita «Dorre-garabiko operadorea» espezialitatean profesional baimenduak prestatzeko entitate gisa.

AURREKARIAK

***Lehenengoa***.– Jaso Equipos de Obras y Construcciones SL entitatearen ordezkaritzak 2010eko azaroaren 5ean eskabide bat aurkeztu zuen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan. Entitate hori «dorre-garabiko operadorea» espezialitatean profesionalak prestatzeko entitate gisa onartzeko eskatu zuen.

***Bigarrena***.– Eskabidearekin batera, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. Kapituluan aurreikusitako eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ziren. Industria-segurtasunaren alorrean, norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen ditu dekretu horrek. Aurkeztutakoak honakoak dira:

– Entitatearen identifikazio-datuak, egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan izanik: Madril-Irun errepideko 415. km (20213) Idiazabal.

– Prestakuntza-jarduerak gauzatzeko entitateak dituen giza baliabideen deskribapena.

– Garatuko diren ikastaroei buruzko zehaztapenak, gaiak, metodologia, antolakuntza eta ebaluazio-sistemak xehetasunez azalduta.

***Hirugarrena***.– Aurkeztutako agiriak aztertu ostean, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako zerbitzu teknikoek 2010eko urriaren 20an ikuskatzeko bisita bat egin zuten eskatzailearen instalazioetara. 2011ko martxoaren 16an egiaztatu zen zuzenduta zeudela bisita horren ondorioz antzeman zituzten hainbat akats.

***Laugarrena***.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako buruak aldeko txostena eman zuen 2011ko martxoaren 17an, Jaso Equipos de Obras y Construcciones SL aitortutako erakunde gisa onartzeko.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO**

**2439**

RESOLUCIÓN de 31 de marzo de 2011, de la Directora de Administración y Seguridad Industrial, por la que se reconoce a Jaso Equipos de Obras y Construcciones, S.L., como Entidad Reconocida para la Formación de Profesionales Autorizados, en la especialidad de Operador de Grúas-Torre.

ANTECEDENTES DE HECHO

***Primero***.– Por la representación de Jaso Equipos de Obras y Construcciones, S.L., con fecha de 5 de noviembre de 2010, se presentó ante la Delegación en Gipuzkoa del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, solicitud para el reconocimiento como Entidad de Formación de Profesionales Autorizados, en la especialidad de Operador de Grúas-Torre.

***Segundo***.– Junto con dicha solicitud se acompañó la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos y condiciones previstos en el Capítulo V del Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial, en particular:

– Datos de identificación de la entidad, cuya sede se encuentra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa: carretera Madrid-Irun, km 415 (20213) Idiazabal.

– Descripción de los recursos humanos de la entidad para la impartición de las acciones formativas correspondientes.

– Especificación de los cursos a desarrollar, detallando los temarios, metodología, organización y sistemas de evaluación previstos.

***Tercero***.– Tras el análisis de la documentación presentada, por parte de los servicios técnicos de la Delegación Territorial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo en Gipuzkoa, se giró con fecha de 20 de octubre de 2010 visita de inspección de las instalaciones de la entidad solicitante. A consecuencia de dicha visita, fueron detectadas diversas deficiencias cuya subsanación ha sido acreditada con fecha de 16 de marzo de 2011.

***Cuarto***.– Con fecha 17 de marzo de 2011, el Delegado Territorial del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo en Gipuzkoa, emitió informe favorable a la autorización como entidad reconocida en relación con la solicitud de Jaso Equipos de Obras y Construcciones, S.L.

Espediente horri ebazpena emateko, honako hauek kontuan hartu eta horiei buruzko aipamena egin beharko da:

OINARRI JURIDIKOAK

1.– Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuan ezarritakoari jarraituz egin dira espedientearen izapideak.

3.– Halaber, egiaztatuta geratu da Jaso Equipos de Obras y Construcciones SL delakoak badituela aipatutako 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan xedatu diren gutxieneko instalazioak, eta berebat, badituela 25. artikuluan jasotako gutxieneko giza zein teknika baliabideak eta ikastaroaren edukiak; bere instalazio horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan egonda.

4.– Martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki, beharrezko egiaztapendokumentazioa aurkeztu du erakunde eskatzaileak.

Adierazi diren lege-xedapenak eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen gainerako arauak aztertuta, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Jaso Equipos de obras y Construcciones SL entitatea baimendutako profesionalak prestatzeko entitatetzat aitortzea, espezialitate honi buruzko prestakuntza eman dezan: - Dorre-garabiko operadorea.

2.– Entitate hori Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Baimendutako Entitateen Erregistro Berezian inskriba dadila xedatzea; zenbaki hau izango du: A-0083 zenbakiko REFPA.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

4.– Entitate honek baimena du Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden eta kreditazioa duten instalazioetan ikastaroak emateko. Eskolak beste instalazio batzuetan eman nahi baditu, nahitaezko baimena eskatu beharko du horretarako eskumena duen lurralde-bulegoan, eta kreditatu egin beharko du instalazio horiek betetzen dituztela martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan eskatutako gutxieneko baldintzak.

En la resolución del expediente es necesario tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

1.– La Directora de Administración y Seguridad Industrial es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución de conformidad con lo establecido en el artículo 14 del Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

2.– La tramitación del expediente se ha realizado conforme con lo establecido en el Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial.

3.– Así mismo, queda acreditado que Jaso Equipos de Obras y Construcciones, S.L. dispone de las instalaciones establecidas en el artículo 22, así como que cuenta con los recursos tanto humanos como técnicos y con los contenidos del curso que, con carácter de mínimos se exigen en el artículo 25 del citado Decreto 63/2006; estando ubicadas sus instalaciones en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4.– En cumplimiento de lo establecido en el artículo 25 del citado Decreto 63/2006, de 14 de marzo, la entidad solicitante ha presentado la documentación suficiente acreditativa.

Vistos los preceptos legales citados y otros de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

1.– Reconocer a la entidad Jaso Equipos de Obras y Construcciones, S.L. como entidad reconocida para la formación de profesionales autorizados en la especialidad de: - Operador de grúa torre.

2.– Disponer la inscripción de la referida entidad en el Registro Especial de Entidades Reconocidas para la Formación de Profesionales Autorizados, con el número de registro: REFPA n.º A-0083.

3.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– Esta entidad está autorizada para impartir los correspondientes cursos en las instalaciones acreditadas, radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Para impartir cursos en instalaciones diferentes deberá solicitar la preceptiva autorización de la Delegación Territorial competente, debiendo acreditar, en todo caso, las condiciones previstas en el artículo 22 del Decreto 63/2006, de 14 de marzo.

5.– Onartutako entitate orok bete beharko ditu legezko xedapenek eta erregelamenduzkoek ezartzen dituzten eginbeharrak; bereziki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. Kapituluan aurreikusitakoak.

6.– Aitortutako entitateek galdu egingo dute Aitortutako Entitateren kalifikazioa, baldin eta bete gabe uzten badituzte aipatu 63/2006 Dekretuan xedatutako betebeharrak eta konpromisoak edo aplikatu behar diren bestelako arauak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industria eta Energiako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 31.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.

5.– Toda entidad reconocida deberá cumplir con las obligaciones impuestas en las disposiciones legales y reglamentarias que sean de aplicación, y en particular las obligaciones previstas en el Capítulo V del Decreto 63/2006, de 14 de marzo.

6.– El incumplimiento de las obligaciones y compromisos que resulten de lo dispuesto en el referido Decreto 63/2006 y de las normas que lo desarrollen, determinará la pérdida de la condición de entidad reconocida.

Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Industria y Energía en el plazo de un mes contado desde su notificación, en virtud de lo establecido en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de marzo de 2011.

La Directora de Administración y Seguridad Industrial,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.